

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen taxi zerbitzua ordezkoko garraiobide gisa erabiltzeko laguntzen 2019ko ekitaldiko deialdiaren zuzkiduraren bigarren eta azken handitzea

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 28ko 55/2017 Foru Dekretuak Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen taxi zerbitzua ordezkoko garraiobide gisa erabiltzeko laguntzen oinarri arauak onetsi zituen, eta honakoa ezartzen zuen 14. artikuluan, honako izenburupean: Laguntzen finantzaketa eta zenbatekoak finkatzea. Laguntzak finkatzeko irizpideak. Horren arabera: "Urteko deialdian zehaztuko dira deitzen diren laguntzetarako erabil daitekeen gehieneko zenbateko osoa eta laguntzak aurrekontuko zer partidari egotziko zaizkion, bai eta zenbateko gehigarria ere (ehunekoa kasuan kasuko deialdian zehaztuko da)".

2018ko urriaren 31n argitaratu zen Mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bideratutako eta taxia garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntzen 2019ko deialdia. Horren seigarren oinarrian honakoa ezartzen da: Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019ko aurrekontuko 80203 0321 480.00.21 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" gastu partidaren kargura ordainduko dira. Deialdi honetarako hasierako zuzkidura HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA EURO (356.000,00 euro) da; nolahi ere, kopuru horri ehuneko 50 gehitu ahal izango zaio.

2019ko apirilaren 17an, urteko deialdiaren zuzkiduraren handitzea argitaratu zen, Administrazio Kontseiluaren 2019ko martxoaren 7ko erabakiz onetsia. 80203 0321 480.00.21 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" izeneko partidak 400.000,00 euro dauzka esleituta 2019ko ekitaldirako; beraz, laguntza deialdien zuzkidura 44.000,00 eurotan handitu zen.

Kontuan hartu da lehiaketa bidezko deialdia dela, eta aurkeztutako eskaera kopurua eta ahalik eta gehieni erantzuteko beharra dagoela; hortaz, behin amaituta 400.000,00 euroko zuzkidura, eta aztertuta Desgaituen Arloko txosten teknikoa, zeinak eskatzen baitu 9.442,64 eurotan handitzea kreditua "Lanerako zentroko erabiltzaileentzako sariak" izeneko 80203 0321 480.00.09 partidatik.

Horregatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehen-dakariak proposaturik, eta agiri honek daraman dataren egunean egindako bilkuran kontseilu honek gaia aztertu eta gero, honako erabaki hau hartu da:

ERABAKIA

Lehenengoa. Onespena ematea mugikortasun arazoak dituzten pertsonen taxi zerbitzua ordezkoko garraiobide gisa erabiltzeko 2019ko ekitaldirako laguntzen deialdi publikoaren (ALHAO, 2018ko urriaren 31, 135. zk.) zuzkiduraren bigarren eta azken handitzeari.

Bigarrena. Zuzkidura 9.442,64 eurotan handituko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019rako luzaturiko 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren 80203 0321 4800021 "Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak" gastuen aurrekontu partidaren kontura.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko urriaren 24a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta GOFeren Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA